



## ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

**Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako 2021eko deialdia. Eraikinen garbiketako peoi-lanposturako behin-behineko puntuazioak onartzea.**

2021eko ekainaren 16ko data duen Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez onartu zen "Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko dirulaguntzen deialdia" (EHAA 2021/06/30).

Oñatiko Udalak 5 pertsona kontratatuko ditu dirulaguntza-deialdi honen bitartez:

- KALE GARBIKETAKO PEOIA: Bi lanpostu. 4 hilabeterako, %100ko lanaldian.
- ADMINISTRARIA: Lanpostu bakarra. 4 hilabeterako, %80ko lanaldi partzialean.
- UDAL ERAIKINEN GARBITZAILE: Bi lanpostu. 4 Hilabete eta erdirako (4,5), %80ko lanaldi partzialean.

Lan-eskaintza hauetara aurkeztzen diren hautagaiek honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte, kontratatuak izateko:

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua hasteko bezperan langabea izatea.
- 2021eko ekainaren 30eko EHAAn argitaratutako "Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko dirulaguntza deialdia-ren" 2. artikuluko 6.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea.
- Oñatin erroldatuta egotea.

Horretaz gain, Oñatiko Udalak ERAIKINEN GARBIKETAKO PEOI lanposturako honako ratioak bete behar ditu:

- Gutxienez lanpostu batean kontratatutako pertsona diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuradun izatea.
- Gutxienez lanpostu batean kontratatutako pertsonak 55 urte baino gehiago izatea.

ERAIKINEN GARBIKETAKO PEOIEN lanpostura aurkeztutako hautagaiekin elkarrizketak egin dira eta lan-esperientzia, langabezia egondako denbora eta euskararen ezagutzaren balorazioa egin da.

Horrela, beraz, Sozioekonomia Sailaren eta Pertsonal Sailaren irizpenak aldekoak direla kontuan hartuta, nik, Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

**LEHENENGOA.- ERAIKINEN GARBIKETAKO PEOIEN lanposturako aurkeztutako pertsonen behin-behineko puntuazioak onartzea.**

PUNTUAZIO OROKORRA		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***7178**	9,47	
***9643**	9,40	Eskatzaileak lan eskaintza baztertu du
***7125**	9,17	
***0049**	8,23	
***7210**	7,65	
***7501**	6,90	
***8304**	5,87	
***7734**	5,36	
***7041**	5,25	
***9150**	4,63	
***61524**	4,57	
***7176**	3,60	Lanean
***3751**	2,08	
***7089**	0,00	Elkarrizketara ez aurkeztua

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN TITULAR EDO ONURADUNAK		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***7178**	9,47	
***9643**	9,40	Eskatzaileak lan eskaintza baztertu du
***0049**	8,23	
***7210**	7,65	
***7501**	6,90	
***8304**	5,87	
***7734**	5,36	
***7041**	5,25	
***9150**	4,63	
***7176**	3,60	Lanean
***3751**	2,08	
***7089**	0,00	Elkarrizketara ez aurkeztua

55 URTETIK GORAKOAK		
NA zenbakia	PUNTUAZIOA	OHARRAK
***7178**	9,47	
***7125**	9,17	
***7210**	7,65	
***8304**	5,87	
***7734**	5,36	
***6152**	4,57	
***7089**	0,00	Elkarrizketara ez aurkeztua

Emitza hauen kontra erreklamazioa aurkeztu daiteke, 2021eko azaroaren 23a arteko epea izango da horretarako.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2021eko azaroaren 17an.

